

**II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****KANTAUURIKO URKIDETZA****Behin betiko onestea 02/2019 kreditu gehigarria**

Toki erakundeen aurrekontuei buruzko Foru Arauak 34.3 eta 15. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, 2/2019 kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onespena ematen dion erabakiaren aurka inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu ez denez gero, espediente hori behin betiko onesten da. Hona hemen:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
93400. 861011	Epe laburreko gordailua Caja Rural de Navarran	1.250.000,00 euro
93400. 861012	Epe laburreko gordailua Caja Rural de Navarran	500.000,00 euro
93400. 861013	Epe laburreko gordailua Euskadiko Kutxan	1.000.000,00 euro
93400. 861014	Epe laburreko gordailua Euskadiko Kutxan	500.000,00 euro
<b>Gastuen aldaketaren zenbatekoa, guztira</b>		<b>3.250.000,00 euro</b>

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
87000	Diruzaintzako gerakina	3.250.000,00 euro
<b>Guztira, kreditu gehigarriaren parekoa</b>		<b>3.250.000,00 euro</b>

02/2019 kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onesten duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Izoria, 2019ko uztailaren 11

*Lehendakaria*

**JULEN IBARROLA GOBANTES**